

Administrazio-kontratuetan bete beharreko irizpideak

Berriazko klausula administratiboen pleguko karatulan jaso beharrekoa:

"Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua.

Hizkuntza biak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintzetako bat da eta, bete ezik, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeak oro har dakartzan ondorio berberak izango ditu."

Berriazko klausula administratiboen pleguetako klausulak:

Obra-kontratuetan

KLAUSULA HAU SARTUKO DA:

"Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira".

UDALAREKIKO HARREMANAK:

Ahoz, ahal denean, euskara erabiliko da.

Idatziz, euskara eta gaztelania erabiliko dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

Herri-lanen emakidetan

KLAUSULA HAU SARTUKO DA:

"Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira".

UDALAREKIKO HARREMANAK:

Ahoz, ahal denean, euskara erabiliko da.

Idatziz, euskara eta gaztelania erabiliko dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

Hornidura kontratuetan

KLAUSULA HAU SARTUKO DA:

"Enpresa esleipendunak hizkuntza bietan eskainiko ditu erabilera-eskuliburuak eta kontratuaren xede diren ondasun eta produktuei buruzko dokumentazioa, softwareetako testuak barne."

UDALAREKIKO HARREMANAK:

Ahozkoan, ahal denean, euskara erabiliko da.

komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

Aholkularitza eta asistentzia kontratuetan eta zerbitzu kontratuetan

KLAUSULA HAU SARTUKO DA:

"Kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu edo bestelako lanak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, softwareetako testuak barne."

UDALAREKIKO HARREMANAK:

Ahoz, ahal denean, euskara erabiliko da.

Idatziz, euskara eta gaztelania erabiliko dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan eta zerbitzuak ematea edo hirugarrenekin harremanetan jartzea eskatzen duten administrazio-kontratu berezietan

KLAUSULA HAU SARTUKO DA:

"Esleipendunek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte errotuluetan, megafonia bidezko komunikazioetan, erabiltzeko jarraibideetan, etiketetan eta ekoiztako produktuen bilgarrietan, baita eskaintzen dituzten zerbitzuak emateko sortzen diren dokumentuetan ere."

UDALAREKIKO HARREMANAK:

Ahoz, ahal denean, euskara erabiliko da.

Idatziz, euskara eta gaztelania erabiliko dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

Kontratu mistoetan

Xedearen araberrako klausulak sartuko dira, bateratzeak eskatzen dituen egokitzapenak eginda.

Kontratu mota guztietan

Euskara Sailak eskumena izango du hizkuntza-baldintzak zenbateraino bete diren ebaluatzeko. Ebaluaketan, hizkuntzaren zuzentasuna eta komunikazioaren aldetik prestazioak izan duen kalitatea ere aztertu ahal izango dira. Horretarako, Euskara Sailak ebaluazio-lanerako behar duen informazio eta dokumentazio guztia kontsultatu ahal izango du.